

# ALDI BATERAKO EGONALDIA EGOITZAN, ZAINZAILEAK ATSEDEN HAR DEZAN

Garrantzitsua

**Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.**

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

**Pertsona 65+ mendekotasuna > Egoitza edo tutoretzapeko apartamentu batera sartu**

Fitxa osoa kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio laburtua.](#)

## Zertan datza zerbitzu hau?

Zaintzaile ez profesionalek beren etxeetan artatu ohi dituzten mendekotasuna duten pertsonen aldi baterako egonaldia egoitza-zentroetan ([2.5 fitxa](#)). Helburua da zaintzaileak atsedenerako, aisialdirako eta bere burua zaintzeko denbora pertsonala izatea. Zaintzaileak ere jo dezake zerbitzura, bere eginkizuna aldi baterako betetzea eragozten dion egoera batean dagoelako (bajan dago, oportetara joan behar du...). Eskaintzen den zerbitzua aldi baterako egonaldia egiten den egoitza-zentroari dagokiona da.

## Nork jaso dezake zerbitzu hori?

Mendekotasuna duten pertsonen (I., II., III. graduak-25 puntu edo gehiago Mendekotasuna Baloratzeko Baremoan) **zaintzaile nagusiak eta senideak**, atsedena behar dutenak.

## Zein baldintza zehatz bete behar dira zerbitzua eskatzeko?

- Mendekotasuna duen pertsona zaindua eta zaintzailea etxebizitza berean eta dagokion lurralde historikoko udalerrri batean erroldatuta egotea.
- Zaindutako pertsona eta zaintzailea etxebizitza berean erroldatuta egotea 12 hilabetez eta eskaera egin aurreko 12 hilabeteetan.
- Atsedena hartzeko egonaldia egingo den egoitza-zerbitzuan sartzeko baldintzak betetzea.
- Zaintzailea eta mendekotasuna duen pertsona elkarrekin bizi direla egiaztatzea, zainketak Udaleko Gizarte Zerbitzuen txostenaren bidez justifikatzen badira.

## Zenbat balio du zerbitzuak?

**Koordainketaren menpe dagoen zerbitzua** da, hau da, erabiltzaileak zerbitzuaren zati bat ordaintzen du bere egoera ekonomikoaren eta zerbitzua erabiltzeko modalitatearen arabera.

## Nori dagokio zerbitzu hori ematea?

**Foru Aldundien ardura** da zerbitzua ematea.

## Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

Zerbitzu honetan interesatuta bazaude eta gehiago jakin nahi baduzu, Gizarte Zerbitzuetan lan egiten duten pertsonekin hitz egin dezakezu. Nola funtzionatzen duen eta zerbitzu hori nola balia dezakezun azalduko dizute. Esaiguzu zure udalerrria eta harremanetarako lekuak eta datuak adieraziko dizkizugu.

## Zer arauk ezartzen du zerbitzu hori?

Zorroaren jatorrizko fitxarako sarbidea

## Informazio gehiago:

- [Aldi baterako egonaldia egoitzan, zaintzaileak atsedean har dezan Araban](#)
- [Aldi baterako egonaldia egoitzan, zaintzaileak atsedean har dezan Bizkaian](#)
- [Aldi baterako egonaldia egoitzan, zaintzaileak atsedean har dezan Gipuzkoan](#)

[Fitxa laburrera itzuli](#)